

PASKAL-EN GOGAMENAK

XIII Kendu egizu, Iauna, neure geiso edo gatšak gaitik euki neian *tristeza*, eta emon egidazu bere orde *tristeza* santu zeurearen irudikoa. Nire *pena* ta nekeak *serbidu* deieela baketu edo bigunduteko nire aserre *justua*. *Obrau* egizuz alde batera nire osasuna, eta nire *konbersinoe* edo zugana biurrera egiazkoa. Ezteidala nik *deseau*, edo gura izan ez osasuna, ez bizitzea, ezpada *enpleetako* eta amaituteko zugaitik, zeugaz, eta zeugan. Nik ezteutsat Iauna eskatzen ez osasunik, ez geisorik, ez bizitzarik, ez eriotzarik, ezpada egin deizula nizaz gura dozuna, nire osasun, edo geiso, bizitza edo eriotzeaz zeure *gloriarako*, nire onerako, eta Eleiza Ama Santuaren *owarako*, zeintzueen artean itšaroten dot *parte* izatea zure *graziaren* laguntasunaz. Zeuk dakizu zer *konbeni* iatan, zu zara neure Iaube oso ta bakarra, eta egizu nigan ondoen deritšazuna. Emon egidazu, edo kendu egidazu, baiña bardindu egizu nire *borondatea* zeureagaz, eta egizu *umiltasun* ta *konfiantzarik* andieenaz *prestau* naiteala artzeera zure *probidenzia* santuaren *ordenak*, eta *adorau* degidala bardin zuganik iatortan guztia.

XIV Egizu Iauna artu deidazala iazoera guztiak *espiritu* ta gogo bardiñaz, bada eztakigu guk zer eskatu bear dogun, edo zer iakun ondoen zure iakituria altsu, ta *ius-toak* eskutau deuskuzan asmoetarako. Nik dakit eztakidana gauza bat baiño, eta ziur dakidana da dala gauza ona zuri iarraitutea, eta deungea zu *ofendidutea*. Onezaz ostean eztakit zer dodan oba edo tšarrago ezetan bere; ala osasuna, ala geisoa, ala ondasunak, edo *pobreza*; ezaguerara au ez iakuee emon ez gizonai, ez Aingeruai, dago gordeta zure *probidenzia* *adoragarri* guk azaldeetako sakonegi direanetan.

XV Azkenik egizu, Iauna, nagoan *estaduan* nagoala *konformau* ta bardindu nadila zeure *borondateagaz*. Ba-

(i) Erderazko *lámpara* adierazoteko *arkontzi* sortu dau Bilbo ko euskalzale batek.

nago gaisorik eta *penaz* orain nagoan legez *bedeinkatu* eta *glorifikatu* zaidazala neure *trabajuetan*, bada eurak bage ezin sartu neiteke *gloriaan*, eta zeuk, neure Salbagilea ez zenduan sartu gura izan *gloriaan trabajuetatik* baiño. *Trabajuetatik* ezagutu zendueezan zeure *diszipuloak*, eta *trabajuak* dira zure *diszipulu*, ta eskolaueen markea. Ezagutu nagizu bada, zeure eskolau ta *diszipulotzat* neure arima ta gorputzean daroadazan *penaakgaitik* neure pekatuakgaitik. Eta ezer bere eztan legez Aita Iaungoikoaren gogokoa bere semearen bitaartez ezbaiaiko, batu egizu Iauna nire *borondatea* zeureagaz, eta nire *penaak* zuk gure *amodioz* eroan zenduzanakaz. Egizuz nire *penaak* zeureak; batu nagizu guztiau zeugaz, bete nagizu zeure Espiritu Santuagaz; Sartu saitez neure biotz ta arimaan eroateko neugaz batera neure neke ta penaak, iraatsi egizuz zeure *pasinoietakoetara*, artu egizuz zeuretzakotzat zeure *mienbro* edo zati onek daroazanak; nagoala alan zugaz beterik, ez nadin izan ni bizi nazana, ez *padezietan* dodana ezpada zeu, O neure Salbagile gozoa, nigan bizi, eta *padezietan* dozuna, eta modu onetan daukadala *parte* edo zatitsu bat zeure *penetan*, bete naizun guztiau *penaak* erakarri eutsueen Zeruko *gloriaz*, zeifietan bizi zarean Aita Iaungoiko eta Espiritu Santu Iaungoikoagaz, Iaungoiko bakarra, amai bagako bizitzan.—AMEN.

J. A. MOGUEL.

